

16. korrika æk

Zer da Korrika?

Korrika, Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak (AEK) antolatuta, Euskal Herri osoan zehar egiten den euskararen aldeko lasterketa erraldoia da. Euskararen aldeko kontzientzia suspertzea eta gau-eskola zein euskaltegien eguneroko lana indartzeko dirua biltzea ditu helburu.

1980an Euskal Herria Oñatitik Bilbora zeharkatu zuen 1. Korrika antolatu zenetik, euskararen alde antolatzen den ekitaldirik jendetsuena eta garrantzitsuenetakoa da. Ordudanik 15 Korrika eta 28 urte igaro dira. 2009ko martxoaren 26an hasita, 11 egunez eta gelditu gabe, Euskal Herria zeharkatuko du hamaseigarrenez Korrikak. Bi mila kilometro baino gehiago euskararen alde, adin eta mota guztietako milaka korrikalarirekin, gau eta egun gelditu gabe.

Korrika hasi eta amaitu arte, lekukoa pasatzen da eskuz esku eta kilometroz kilometro korrikalarien artean; lekuko horren barruan Korrika helmugara iristean euskaldun ezagun batek irakurriko duen mezua doa, ordura arte sekretupean gordetzen dena.

Ehunka mila lagun izan dira parte-hartzaileak aurreko Korrika edizioetan. Korrikaren inguruan sortzen den mugimenduak Euskal Herriko jendarteak bere hizkuntza berreskuratzearen alde egindako hautua erakusten du. Euskal Herriko jendarteak astintzen duen gertakari bilakatu da bi urterik behin egiten den Korrika. Lasterketan parte hartzen duen jende kopuruak gora egiten du etengabe, Korrikaren antolaketan milaka lagun aritzen dira herriz herri eta auzoz auzo eratutako batzordeetan, eta kanpainak irauten duen bitartean ehunka jaialdi, kultur ekitaldi eta abar antolatu ohi dira.

Nork antolatzen du?

AEK-k (Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundeak), euskararen berreskuratzea eta Euskal Herriaren berreskalduntzea xede duen erakundeak. Hori lortzeko helduen euskalduntze eta alfabetatze alorrak jorratzen ditu: euskara eskolak, ikerkuntza, material didaktikoen sorkuntza, irakasleak prestatzeko ikastaroak, kultur ekitaldien antolakuntza, euskara erabiltzeko mintzalagun programak, lantegi eta erakundeen normalizazio planen diseinu eta gauzapena, eta euskararen aldeko kontzientziatze kanpainak.

Lehenengo alfabetatze taldeak 1965 inguruan sortu ziren, eta urte hartan antolatu zen alfabetatzearen aldeko lehenengo kanpaina. Alfabetatze arloa jorratzeaz gain, alfabetatze taldeak Euskal Herri osoan sortzen ziren neurrian, agerian geratu zen euskara irakatsi beharra euskararik ez zekien euskal herritar multzo handiari. Horixe izan da AEKren urteotako zeregin nagusia. Halaxe sortu ziren, mugimendu hori guztia Euskaltzaindiak babestu eta bultzatu zuelarik, gau-eskola izenekoak eta, geroago, euskaltegiak. Gaur egun, AEK helduen euskalduntze-alfabetatzean aritzen den elkarterik garrantzitsuenak dugu eta, administrazio banaketak gaindituz, Euskal Herri osoan lan egiten duen bakarra. Horretarako 500 irakasle baino gehiago ditu euskara eskolak ematen 100 euskaltegi eta gau-eskola baino gehiagotan banatuta; eta, horrez gain, normalizazio planak bideratzen laguntzeko zerbitzua, erabilera bultzatzeko programak, itzulpen zerbitzua eta AIZU! aldizkaria, besteak beste. Horiei guztiei laguntzeko, baina batez ere Iparraldeko eta Nafarroako beharrei erantzun ahal izateko, jakina baita eremu administratibo horietako euskaltegi eta gau-eskolek ez dutela inondik ere behar dituzten diru laguntzak jasotzen, baliatuko ditu AEK-k Korrika 16rekin bilduko dituen ekarpenak.

korrika æk

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!

ongi etorri : interj. Etorri berria abegitsu hartzen dela adierazteko esamoldea

Hizkuntza bat galtzeko arriskuan dagoenean, hizkuntza hori salbatzeko lehenengo baldintza da herriak hizkuntza hori berreskuratu nahi izatea. Euskararen kasuan, herriak euskara berreskuratu nahi duela sarri erakutsi du. Korrika, hain zuzen ere, borondate horren adierazpena da. Baina nahi izatea ez da nahikoa. Gure mezua, gure ongietorria, harago doa. Herritarren borondateari atxikirik, Korrika 16ra etortzeaz gain, Korrikan azaleratuko den nahiari kasu egiteko deia luzatu nahi diegu Euskal Herriko norbanako, erakunde eta administrazio guztiei. Erakunde eta administrazioek euskararen normalizazioa bultzatzea nahi dugu, euskaldunek leku guztietan (lantokian, karrikan, etxean,...), euskara erabiltzea nahi dugu, eta euskaldundu nahi dutenek euskara ikastea nahi dugu. Euskarak, Korrikak bezala, pausoa arin eta gelditu gabe egin behar du aurrera, aurreraka ez doanak atzeraka hasteko arriskua hartzen baitu. Eta horretarako denek parte hartzea ezinbestekoa da. Korrikan bezala, lekukoa lurrera eror ez dadin, esku guztiak dira beharrezkoak.

Euskaldunek ongietorria egiten diegu gure herrira, gure etxera, gure artera datozen lagunei. AEK-k berdin egin nahi du Korrika 16rekin: ONGI ETORRI! handi bat luzatu nahi die euskararen berreskurapenean lagundu behar duten erakunde guztiei, euskalgintzan dabilzan guztiei, euskaltzale guztiei, euskaldunei eta euskaldundu nahi duten guztiei, bertakoei eta kanpotik datozenei.

Ongi etorri Korrikara!

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!

Ongi etorri euskaraz gozatzeko, lan egiteko, maitatzeko, saltzeko eta erosteko, negar egiteko, jolasteko... hautua egin dugunon herrira!

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon artera!

korrika æk

Korrika 16. Omenduak

Arestian aipatu ditugun “ongi etorri” horiek Euskal Herriko milaka biztanlek “ongi hartu” dituztela frogatu ahal izatea da AEKren eta Korrikaren erronka pozgarria.

Urtetan zehar ehunka mila izan dira Euskal Herrira lan bila, bizimodu hobea baten bila edo bizi ahal izateko leku bila, besterik gabe, bertaratu diren familiak. Eta horien guztien artean, hainbestek eta hainbestek, euskal herritarren ongietorria ongi baino hobeto hartuz eta ulertuz, ekarpen goraipagarria egin diote gure hizkuntzari. Euskal Herrira heldu, euskara ikasi eta erabili, umeei irakatsi, gure kulturaz gozatu, berari ekarpen euskalduna egin, eta belaunaldiz belaunaldi gure hizkuntza transmititu duten milaka familia horiek izan nahi ditu gogoan Korrika 16k aurtengo omenaldia gauzatzeko. Omenaldi hau bi ardatz nagusi kontuan harturik planteatu nahi dugu: batetik, egin duten ekarpenagatik gure eskerrik zintzoena eman nahi diegu; bestetik, beraien guztien ekarpena eta konpromisoa azaleratu nahi dugu, kanpotik datozen familientzako eta bertan jaiotako eta hazitako familia oraindik ez euskaldunentzako eredu izan daitezen.

Bestalde, jakina da, Euskal Herriak kanpotik hainbat hartu baditu ere, kanpora hainbeste bidali dituela. Horien artean, askok eta askok, belaunaldien poderioz euskara galdu dute. Eta kanpora joan barik ere, horrenbeste izan dira, frankismoaren edo frantses estatuko lege jakobinoen erruz, euskara galdu duten familiak. Zorionez, hauen artean ere badira euskara berreskuratzeko, euskara euren etxeetara itzul dadin, ahalegin aipagarria egin duten familiak. Horiek guztiak ahazteak ez lioke geure omenaldiari behar duen osotasuna bermatuko. Bihoakie beraz, euskara ikasi eta gero transmisioa bermatu duten familia guztiei, baita euskara galdu eta berrikasiz transmisioa ahalbidetu duten familia guztiei ere, Korrika 16ren omenaldi xumea.

Nola hartu parte

Korrika 16an parte hartzeko molde ainitz badituzue. Zuen laguntza erretzeko asmoz, hona hemen horietako batzuk :

- Egiazko korrikalarien ezaugarri nagusia den bizkarrekoa erosiz, aintzinetik AEK-n (Marengo karrika 22, Baion), zure herriko Gau Eskolan edo Korrika egunean bertan.
- Korrikan zuzenki parte hartuz, lasterka eginez 100 metro, kilometro bat, bi edo hamarretan
- Zure herrian edo auzoan eratuko den Korrika batzordean parte hartuz.
- Korrika kulturalak antolatuko dituen ekitaldietan agertuz.
- Korrikaren web-gunea bisitatuz (www.korrika.org).
- Martxoaren 26an Tuterara eta apirilaren 5ean Gasteizera joanez, eta Korrika 16ren hasieran eta amaieran parte hartuz.
- Korrika 16ren materiala edo oroigarriak erosiz, Korrika aintzinetik, bitartean edo ondoren.
- Herriz herri egingo den Korrikaren aldeko diru bilketan lagunduz.
- Enpresa edo saltegiek, korrikalaria, korrika-lagun txartela edo Korrika iragartzeko aterako diren bestelako euskarriaz babestuz.